

## Innobasquek hamar erakunde bazkide errekonozitu ditu, beraien artean Bilbao Berrikuntza Faktoriako proiektua eta LEINN gradua.

2017/05/24

Innobasquek hamar pertsona errekonozitu ditu, bere erakunde bazkideen artean. Hau izan da Innobasqueren hamar urteak ospatzeko egin den ekintzetako bat eta bere Asanblada Orokorrean egin zen.

Berau Global Innovation Day barnean kokatu zen. Lehendakariaren diskurtsoa eta gero aurtengoan X. Urteurrena ospatzeko errekonozimendu bat egin zen bazkideen artean eta horretarako hamar perfil desberdinetako bazkideak aukeratu ziren. Hauetako bat Bilbao Berrikuntza Faktoriako proiektua izan zen, adibide kolaboratibo gisa eta LEINN gradua.

Jose Mari Luzarragak, LEINNeko bultzatzaileetako batek, jaso zuen errekonozimendua. Hauek izan ziren bere hitzak: "Kolaboratu dezagun, kolaborazioa baliabide iturri agortezina delako. Kolaborazio prozesuak esfortzua eskatzen du, eta eskuzabaltasuna pertsonen artean eta gakoa bihurtzen da erakunde eta gizartean berrikuntza bultzatzeko".

